



1

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

384/2022 Foru Agindua, uztailaren 21ekoa. Honen bidez, sarrera- eta ondare-maila baxua duten pertsona fisikoentzako laguntza eskatzeko prozedura arautzen da; laguntza hori ekainaren 25eko 11/2022 Errege Lege Dekretuan ezartzen da, zeinaren bidez neurriak hartu eta luzatzen baitira Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei eta zaugarritasun sozial eta ekonomikoko egoerei erantzuteko eta La Palmako uhartearen suspertze ekonomikoa eta soziala bultzatzeko.

Ekainaren 25eko 11/2022 Errege Lege Dekretuak (haren bidez neurriak hartu eta luzatzen baitira Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei eta zaugarritasun sozial eta ekonomikoko egoerei erantzuteko eta La Palmako uhartearen suspertze ekonomikoa eta soziala bultzatzeko) sarrera- eta ondare-maila baxua duten pertsona fisikoentzako zuzeneko laguntza-lerro bat ezarri du, pertsona horiek direla soldatapekoak, direla langile autonomoak edo langabetuak. Ordainketa bakarreko 200 euroko laguntzaren bidez, arindu nahi da Ukraina inbaditzearen ondorioz sortu den krisi energetikoak prezioen gainean izan duen ondorio kaltegarria, zeinak beste prestazio sozial batzuek estaltzen ez dituzten kalteberatasun ekonomikoko egoeretan eragina baitu; egoera hauei buruz ari gara, besteak beste: kotizaziopeko pentsioak –zeinen igoera bermatzen baita inflazioarekin bat etorriz–, bizitzeko gutxieneko diru-sarrerak, edo erretiro- eta baliaezintasun-pentsio kotizazio gabekoak, kontuan hartuta azken bi kasu horiek aparteko igoera jaso dutela, aipatutako Errege Lege Dekretuan aurreikusitako moduan. Laguntza hau jasotzeko, baterako diru-sarreraren eta ondareen gehieneko kopuru batzuk ezartzen dira, etxean bizi diren pertsonen kopuruaren arabera, laguntzaren onuradunen kolektiboak premia- eta progresibitate-printzipioei erantzuteko.

Aipatutako errege lege-dekretu horren 31. artikulua xedatzen du euskal administrazioek eskumena dutela laguntza hori izapidetzeko, onuradunek bizitokia haien lurraldea duten kasuan.

Beraz, foru-agindu honen bidez, aurreko paragrafoan ezarritako laguntza kudeatzeko prozedura arautzen da.

Adierazi behar da laguntza ez dela enbargatuko edo/eta konpentsatuko zerga-zorrak azkentzeko bide gisa.

1. artikulua. Xedea eta aplikazio-eremua.

Foru-agindu honen helburua da 25eko 11/2022 Errege Lege Dekretuaren 31. artikuluan ezarritako laguntza eskatzeko prozedura arautzea; errege lege-dekretu horren bidez, neurriak hartu eta luzatzen dira Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei eta zaugarritasun sozial eta ekonomikoko egoerei erantzuteko eta La Palmako uhartearen suspertze ekonomikoa eta soziala bultzatzeko.

2. artikulua. Onuradunak.

Ekainaren 25eko 11/2022 Errege Lege Dekretua (haren bidez, neurriak hartu eta luzatzen dira Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei eta zaugarritasun sozial eta ekonomikoko egoerei erantzuteko eta La Palmako uhartearen suspertze ekonomikoa eta soziala bultzatzeko) indarrean jartzean bizilekua Gipuzkoako Lurralde Historikoa duten eta errege lege-dekretu horren 31. artikuluan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituzten pertsona fisikoak izango dira aurreko artikuluan adierazitako laguntzaren onuradun.

3. artikulua. Eskaera eta laguntza ordaintzea.

1. Foru Agindu honen 1. artikuluan adierazitako laguntzaren eskaera onuradunak edo haren zerga ordezkariak aurkeztuko du, gehienez 2022ko irailaren 30ean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa horretarako eskura jarriko den formularioa betez eta bidaliz.

2. Gipuzkoako Foru Ogasunak ekainaren 25eko 11/2022 Errege Lege Dekretuan eskatutako betekizunak egiaztatu ondoren ordainduko du laguntza.

Laguntza banku-transferentzia bidez ordainduko da, eta transferentzia jasotzean jakinarazitzat joko da emate-erabakia.

Formularioa aurkezteko epea amaitzen denetik hiru hilabete igaro badira eta laguntza ordaindu ez bada, eskaera ezetsitzat jo ahal izango da.

Presuntziazko ezespeneraren aurka berraztertze-errekurtsoa edo erreklamazio ekonomiko-administratiboa jar daiteke, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauan jasotako baldintzetan.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarrean jartzea.

Foru-agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean jarriko da indarrean, eta egun horretatik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Donostia, 2022ko uztailaren 21a.—Ogasuna eta Finantza Departamentuko foru diputatua.
(4965)